

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**222/2019 Foru Agindua, abuztuaren 30ekoa, zeinak ezezkoa ematen baitio Guardiako Herrigune Historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 06-07 eraikuntza unitateari buruzko huts materiala zuzentzeko espedientearen onespenerari**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2019ko ekainaren 13an sartu zen idazkiaren bitartez, Guardiako Udalak Guardiako Herrigune Historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 06-07 eraikuntza unitateari buruzko huts materiala zuzentzeko espedientea bidali zuen.

Espedientearen zati da Jorge Inchaurre Martínez de Murguía arkitekto jaunak idatzitako agiria, zeinetan adierazten baitu egokia dela Guardiako Herrigune Historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 06-07 eraikuntza unitateari dagokion katastro erreferentzian antzemandako hutsa zuzentzea eta "2-47" idatzita dagoen lekuan "2-53" idaztea, oinarritzat hartuta Arabako Foru Aldundiak 2017ko ekainean 2 poligonoko 47 eta 53 katastro lurzatiei buruz egindako ziurtagirietan agertzen den informazioa.

Bigarrena. Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak 2019ko uztailaren 22an honako txosten hau eman zuen: "Guardiako 2 poligonoko 47 eta 53 lurzatiaren txosten historikoa", eta honako hau adierazi zuen han:

«Hiri-landa ondasun higieziari buruzko katastro erregistroan dauden datuak aztertuta, honako hau ikusi da:

1999ko martxoaren 25ean, udalerriko hiri ondasunen erregistroa digitalizatu zen, eta alta eman zitzaion 47 katastro erreferentziako katastro lurzati berriari, zeina 2 poligonoko 47 lurzatiari, zeinak 304,87 m<sup>2</sup> baitzitu, eta 2 poligonoko 53 lurzatiari, zeinak 76,87 m<sup>2</sup> baitzitu.

2010eko martxoaren 30ean, 53 lurzatiaren erantsi zitzaion 2 poligonoko 47 katastro lurzatiari, 2009ko otsailaren 19ko data zuten honako agiri hauek aurkeztu ostean: "obra berriko eraikuntzaren adierazpen eskritura, jabetza horizontaleko araubidearen eraketa, erkidegoaren arauak eta titulartasunen zehaztapena" (287 protokoloa). Ondorioz, 28-02-0047 katastro erreferentzia zuen lurzatiaren azalera 159,93 m<sup>2</sup> izatera pasa zen eta 28-02-53 katastro erreferentzia zuen lurzatiarena 221,81 m<sup>2</sup> koadro izatera».

#### OINARRIAK

Lehenengoa. Ekainaren 27an, ALHAOren 72. zenbakian, ordenantza arautzaileekin batera argitaratu zen Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuaren 433/2005 Foru Agindua, eta haren bidez, betetzat jo ziren azaroaren 10eko 932/2004 Foru Aginduan ezarritako betekizunak eta behin betiko onetsi zen Guardiako Herrigune Historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren espedientea.

Bigarrena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua arabera, «Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Gure jurisprudentziak aztertu du akatsak zuzentzeko bide hori plangintza tresnetan zein neurritan erabil daitekeen, eta ondorioztatu du bide hori ezin dela erabili aipatutako tresnan aldaketak egiteko. Horrez gain, adierazi du aztertu beharra dagoela akatsen zuzenketaren bidez zuzendu nahi diren huts materialak benetan halakoak diren edo ez ote den ondorioztatu behar ezin direla kategoria juridiko horren bidez bideratu eta ezegokia dela 30/92 Legearen 105. artikuluan (39/2015 Legearen 109.2 artikulua) agertzen den bidea.

Horiek horrela, kontuan hartu behar da 30/92 Legearen 105. artikuluan aurreikusitako prozeduraren xedea dela formula bat eskura jartzea, akats material huts eta agerikoak bere horretan gera ez daitezen eta gehiegizko ondoriorik izan ez dezaten edo haiek ezabatzeko ez dadin beharrezkoa izan berrikuspen prozedura nekezen formalitatea (Auzitegi Gorenaren 1990eko otsailaren 27ko epaia). Horrenbestez, ezinbestekoa da aipatutako lege agindua eta hartan jasotako prozedura modu mugatuan aplikatzea (Auzitegi Gorenaren 1978ko apirilaren 21eko eta 1985eko irailaren 18ko epaiak), eragozteko horren bidez benetako ofiziozko berrikuste ahalmena ezkatzea eta 30/92 Legearen 109. eta 119. artikuluetako (39/2015 Legearen 114. eta 126. artikulua) izapide formalak ez betetzea (Auzitegi Gorenaren 1991ko otsailaren 1eko epaia).

Interpretazio lerro horri jarraituz, adierazi beharra dago huts materiala honako hau dela: egitezko akatsa izan den figura, egoera edo dena delakoaren kalifikazio juridikoaren arabera edozein iritzi edo irizpide alde batera utzita halakotzat kalifikatu daitekeena (Auzitegi Gorenaren 1966ko apirilaren 20ko epaia, 1973ko uztailaren 4koa, 1974ko maiatzaren 31koa, 1984ko uztailaren 20koa eta 1985eko azaroaren 5koa).

Bestela esanda, ekintza, gauza edo gertakari bati buruzko akatsa da egitezko hutsa; hau da, iritzi, irizpide partikular edo kalifikazioak gorabehera existitzen den errealitatea, zeinak agerikoa, eztabaida ezina eta nabaria izatearen zantzuak baititu (Auzitegi Gorenaren 1965eko abenduaren 17ko epaia, 1977ko abenduaren 5koa, 1981eko ekainaren 17koa eta 1988ko apirilaren 6koa). Laburbilduz, garrantzirik gabeko akatsak dira, administrazio espedientearen beraren ondorio direnak (Auzitegi Gorenaren 1984ko uztailaren 20ko epaia, 1985eko maiatzaren 30koa, 1989ko urtarrilaren 31koa eta 1990eko otsailaren 27koa).

Horiek horrela, huts materiala edo egitezkoa izan dadin, honako hauek bete behar dira:

a) Aplika daitezkeen arau juridikoen interpretazio irizpidea edo iritzia gorabehera, errealitatea izatea (Auzitegi Gorenaren 1983ko urriaren 17ko epaia, 1984ko uztailaren 20koa, 1986ko urriaren 22ko epaia eta 1987ko otsailaren 25eko epaia).

b) Administrazio espedienteko datuak kontuan hartuta soil-soilik egiaztatu ahal izatea (Auzitegi Gorenaren 1984ko uztailaren 20ko epaia, 1985eko maiatzaren 30koa, 1989ko urtarrilaren 31koa eta 1990eko otsailaren 27koa).

c) Akatsa duen egintzaren iraupen juridikoari eragin gabe zuzendu ahal izatea (Auzitegi Gorenaren 1984ko uztailaren 20ko epaia, 1985eko maiatzaren 30koa, 1989ko urtarrilaren 31koa, 1990eko otsailaren 27koa eta 1991ko otsailaren 1koa).

Hirugarrena. Kasu honetan, ez da 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan jasotako akatsen moduko hutsa; hau da, ez da barne eraberritzeko plan berezia idaztean egindako akatsa; izan ere, 06-07 eraikuntza unitatearen katastro erreferentzia aldatu nahi da, lurzoru hori geroago mugatu zelako eta orduan jarri zituztelako katastro zenbakiak.

Alegia, barne eraberritzeko plan berezia egin zenean, 06-07 EUn sartuta zegoen lurzoruaren katastro indentifikazioa 2-47 zen, baina 2010eko martxotik aurrera, 2-53 da, bigarren aurrekarian aipatu bezala eskrituran aldaketak egin zirelako.

Bi hitzetan, ez da ageriko akatsa eta argia, barne eraberritzeko plan berezia egiteko espedienteko datuak soilik aztertuta egiaztatu daitekeena; aitzitik, barne eraberritzeko plan berezia onetsi ostean egindako katastro mugaketa bati buruz ari gara, planarekin zerikusirik ez duena.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da balorazio tekniko-juridikoa egitea eta plangintza aldatzea, era horretan jendaurreko informazio izapidea beteko dela bermatzeko.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ezezkoa ematea Guardiako Herrigune Historikoaren Birgaitze Plan Bereziaren 06-07 eraikuntza unitateari buruzko huts materiala zuzentzeko espedientearen onespenerari.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta horretarako, bi hilabeteko epea izango da, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 30a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*